

Ebazpena: R042/2024

Espedientea: E069/2022

Vitoria-Gasteiz, 2024ko irailaren 25a.

Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Itunaren Arbitraje Batzordea honakoek osatzen dute: Violeta Ruiz Almendral presidenteak eta Sofía Arana Landín eta Javier Muguruza Arrese bokalek. Eta honako hau erabaki dute:

ERABAKIA

Zerga Administrazioako Estatu Agentziak (aurrerantzean, ZAEA) Gipuzkoako Foru Aldundiaren (aurrerantzean, GFA) aurka planteatutako gatazkari buruzkoa, zeinaren helburua baita zehaztea nork duen eskumena 2015eko ekitaldian Gizarte Segurantzako erregimen publikoetako pentsio gisa ordaindutako zenbatekoen gainean GIPUZKOAKO GSINek egindako pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren (aurrerantzean, PFEZ) konturako atxikipenak ordainarazteko. Gatazka hori 69/2022 espediente-zenbakiarekin izapidetzen ari da Arbitraje Batzorde honetan.

AURREKARIAK

1.- GSINek, Gizarte Segurantzaren erakunde kudeatzaileak, nortasun juridikoa duenak, Gizarte Segurantzaren sistemako prestazio ekonomikoak kudeatzeko eta administratzeko ardura du, salbu eta Adinduen eta Gizarte Zerbitzuen Institutuak edo autonomia-erkidegoetako zerbitzu eskudunek kudeatutakoak. Probintziaren eremuan, GSINen organo dira haren zuzendaritza probintzialak.

2.- 2019ko urtarrilaren 28an, ZAEAk GIPUZKOAKO GSINeko Zuzendaritza Probintzialari jakinarazi zion egiaztapen- eta ikerketa-jarduketak hasi zirela, 2015eko eta 2016ko ekitaldietan lan-etekinei buruz egindako atxikipenei dagokienez.

3.- ZAEAk, 2019ko abenduaren 20an, behin jarduketak amaituta, administrazio ez-eskudun komunetan/foraletan egindako diru-sarrerei buruzko txostenean (A09 Erref. Zk.: 70018560) zehaztu zuen ZAEAn sartu behar ziratekeen 1.156.205,22 € eta 1.110.835,55 € GFAn sartu zirela, hurrenez hurren, 2015eko eta 2016ko ekitaldietako lan-etekinen gainean egindako konturako atxikipenen kontzeptuan.

Etekin horiek pentsioak ziren, GIPUZKOAKO GSINek ordainduak, eta, ZAEAREN arabera, ekitaldi horietan ohiko bizilekua lurralde erkidean izan zuten hartzaileei ordaindutakoak ziren.

4.- ZAEAk, 2020ko otsailaren 13an, GIPUZKOAKO GFARI akordio bat igorri zion, zeinaren bidez itzultzeko eskatzen baitzion 2015eko eta 2016ko ekitaldietan pentsioak jasotzen zituztenei ordaindutako lan-etekinei buruz GIPUZKOAKO GSINek egindako PFEZren konturako atxikipenak, uste baitzuen atxikipen horien sarrera bidegabeki egin zela GFAN.

5.- 2022ko maiatzaren 13an, GFak ZAEARI jakinarazi zion uko egin ziola ZAEAk 2015eko ekitaldiari buruz bidalitako errenboltso-eskaerari. Alde batetik, funts-sortaren zati bat baztertu zuen ez zuelako egiaztatutzat jo jasotzaile jakin batzuk

lurralde erkidean bizi zirela, eta, bestetik, ukatu egin zuen lurralde erkidean egoiliar gisa aitortzen zituen beste hartzaile batzuei egindako atxikipenen sorta, preskribatuzat jotzen baitzuen ZAEAREN eskubidea 2015eko ekitaldian sartutako atxikipenei zegokien erreklamaturako kreditua aitortzeko.

6.- GFAREN erantzuna aztertu ondoren, ZAEAK onartu zuen erreklamaturako zenbatekoa 16.334,11 € murriztea. Hain zuzen, hamar hartzailei egindako atxikipenei zegokien zenbateko hori, ondoriozta baitzitekeen ohiko bizilekua, 2015ean, Gipuzkoako lurralde historikoan zutela.

Gainerako zenbatekoagatik (1.139.871,11 € guztira), ZAEAK, 2022ko uztailaren 11n, inhibitzeko eskatu zion GFARI, aitor zezan ZAEAK eskumena zuela GIPUZKOAKO GSINek 2015eko ekitaldian lurralde erkidean bizi ziren hartzaileei laneko etekinengatik egindako PFEZren konturako atxikipenak ordainarazteko, eta, ondorioz, ZAEARI atxikipen horiek itzul ziezazkion.

7.- 2022ko uztailaren 26an, GFAK 2022ko uztailaren 24ko idazkia helarazi zion ZAEARI. Horren bidez, uko egin zion ZAEAK planteaturako inhibizio-errekerimenduari, eta berretsi egin zuen 2015eko ekitaldiko atxikipenei zegokien administrazio arteko zuzenbide publikoko kredituaren preskripzioa.

8.- 2022ko abuztuaren 23an, ZAEAK gatazka planteatu zuen Itunaren Arbitraje Batzordean, adieraz zezan bere iritziz zein administraziok zuen eskumena GIPUZKOAKO GSINek 2015eko ekitaldian lurralde erkidean bizi ziren hartzaileei ordaindutako Gizarte Segurantzako Erregimen Publikoetako pentsioen gainean egindako PFEZren konturako atxikipenak ordainarazteko.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

1.- Arbitraje Batzordearen eskumena

Arbitraje Batzordeak du gatazka hau ebazteko eskumena, Ekonomia Itunaren 66.Bat artikuluan xedatutakoarekin bat, Arbitraje Batzordearen funtzioak ezartzen baititu:

«a) Estatuko Administrazioaren eta foru-aldundien artean edo foru-aldundien eta beste autonomia-erkidegoetako administrazioen artean sortzen diren gatazkak ebaztea, bai tributu itunduen lotuneen aplikazioari dagokionez, bai administrazio bakoitzari zenbateko zatia dagokion zehazteko, sozietateen gaineko zergaren edota balio erantsiaren gaineko zergaren baterako tributazioaren kasuetan.

b) Banakako tributu-harremanetako arazo zehatzetan ekonomia-itun hau interpretatzeko eta aplikatzeko orduan administrazio interesdunen artean sor litezkeen gatazkak erabakitzea.

c) Zergadunen egoitza dela-eta sor litezkeen desadostasunak ebaztea».

2.- Aplikatu beharreko araudia eta ordainarazteko eskumena.

Ekonomia Itunaren 7.Bat artikulua arautzen du Gizarte Segurantzaren araubide publikoetatik jasotako pentsioen atxikpenak eta konturako sarrerak eskatzeko eskumena duen administrazioa zein den zehazteko aplikatu beharreko lotunea. Hala dio artikulua:

«7. artikulua. Lan-etekinak direla-eta egindako atxikpenak eta konturako sarrerak.

Lehena. Lan-etekinak direla-eta egiten diren atxikpenak eta konturako sarrerak, honako kasu hauetan, lurraldea dela-eta eskuduna den foru-aldundiak eskatuko ditu, zeinek bere araudia betez:

(...)

b) Gizarte Segurantzaren eta Klase Pasiboen araubide publikoetatik hartzen diren pentsioen, hartzeko pasiboen eta prestazioen etekinak, baita Enpleguko Institutu Nazionaletik, montepio eta mutualitateetatik, enplegua sustatzeko funtsetatik, pentsio-planetatik eta borondatezko gizarte-aurreikuspeneko erakundeetatik datozenak ere, eta enpresen eta beste erakunde batzuen prestazio pasiboak, baldin eta jasotzailearen ohiko bizilekua Euskadin badago».

Ondorioz, hartzailearen ohiko bizilekua lurralde erkidean dagoenean, ZAEAn ordaindu behar dira GIPUZKOAKO GSINK ordaindutako pentsioen gainean egindako atxikpenak.

3.- Atzera egitea

ZAEAk, azken alegazioen izapidean, eskaera aurkeztu zuen 2024ko ekainaren 5ean, 69/2022 zenbakiarekin izapidetzen ari den gatazkari dagokion prozeduran atzera egin duela uler dadin, eskumen honi dagokionez: ohiko bizilekua lurralde erkidean duten pentsiodunei ordaindutako lan-etekinei buruz GIPUZKOAKO GSINek 2015eko ekitaldian egindako atxikipenak ordainaraztekoa.

ZAEAk, espedientean dagoen dokumentazioa aztertu ondoren, uste du, kontuan hartuta Arbitraje Batzordearen ebazpenak eta Auzitegi Gorenak antzeko kasuetan emandako epaiak —bereziki, Arbitraje Batzordearen irizpidea berresten duen Auzitegi Gorenaren urriaren 11ko 1240/2023 Epaia—, berretsi egiten dela irizpide hau: administrazio arteko kredituaren preskripzio-epea ordaintza okerra egiteko unean hasten da, eta ez da eteten ordainarazteko bere burua eskuduntzat jotzen den administrazioak zergapekoarekin egiten dituen egintzen ondorioz.

Beraz, ZAEAk eskatzen du onar dakiola atzera egitea, gatazkan dauden zenbatekoak erreklamatzeko duen eskubideari dagokionez, onartzen baitu funts-sorta eskatzeko datan (2020ko otsailaren 13a) preskribatuta zeudela administrazio arteko zuzenbide publikoko kredituak, GIPUZKOAKO GSIN 2015ean egindako atxikipenen diru-sarrerei zegozkienak.

Prozedura amaitzeko moduen artean atzera egitea jasota dago Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen (aurrerantzean, APAPEL) 84. artikuluan, eta aplikatzekoa da, bat etorrita Euskal

Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Itunean aurreikusitako Arbitraje Batzordearen Erregelamendua onartzen duen abenduaren 28ko 1760/2007 Errege Dekretuaren 8. artikulua egindako igorpenarekin.

Horren harira, APAPELen 94. artikuluan xedatutakoarekin bat, Arbitraje Batzordeak onartu egin behar du ZAEAk eskatutako atzera egitea, prozeduran ez baitago eta ez baita pertsonatu hirugarren interesdunik, eta gatazkan sortutako auzia interes orokorrekoa ez delako, eta ez delako komeni hura gauzatzea, definitu eta argitzeko.

Ondorioz, ebazpen hau ematen da, APAPELen 21.1 artikuluan adierazitakoa aintzat hartuta.

Horren ondorioz, bi administrazioen arteko gatazka bertan behera geratu da, eta horrek Ekonomia Itunaren Arbitraje Batzordearen aurrean bideratutako prozeduraren xedea gerora galtzea, eta, horrenbestez, artxibatzea ekarri du.

Horiek horrela, Arbitraje Batzordeak honako hau

ERABAKITZEN DU

1.- Onartzea ZAEAk 69/2022 gatazkan atzera egitea.

2.- 69/2022 gatazka artxibatzea, ZAEAk atzera egin, eta, ondorioz, prozeduraren xedea galdu delako.

3.- Erabaki hau Zerga Administrazioako Estatuko Agentziari, Gipuzkoako Foru Aldundiari eta GIPUZKOAKo GSINri jakinaraztea.

Sin.: Violeta Ruiz Almendral.

Sin.: Sofía Arana Landín.

Sin.: Javier Muguruza Arrese.